



Munduko Rugby Txapelketa

# Inglaterra finalera azkenera arte ez zuelako amore eman Murrayfielden

'Larrosakoek' lan asko egin behar izan zuten Eskozia gainditzeko

Inglaterra eta Eskoziak Munduko Rugby Txapelketako lehen finalerdia jokatu zuten atzo Murrayfield zelaian. 'Larrosakoek' arazoak izan zituzten Eskoziako defentsa bikaina gainditzeko, baina azkenean talde sendoagoa dela erakutsi eta finalera pasatzea lortu zuen (6-9).

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Inglaterra garaiz konturatu zen egiten ari zen jokoa ez zela egokia Eskozia menderatzeko. Eskoziarren jokoa azkarra, dinamikoa eta eratsotzailea izanik, oso ondo zetorkion larrosakoek baloiak irekitzea. Lehen zatian horrela gertatu zen, etxekoen hirugarren lerrokoek beren jokoa egiteko erraztasunak zituzten. Mele bilduetatik berehala altxa eta defentsa gogorra egin zuten Jeffrey, Calder eta Whitek, baloia askotan bereganatuz. Atzekaldekoekin ere jokatzeraz ausartu ziren urdinak, zenbait jokaldi arriskutsu eginez.

Touchetan ere lanak eman zizkien Ackford eta Dooley bikote ingelesari. Gavin Hastings berriz, ondo aritu zen hankeko jokoa eta bizpahiru ostiko izugarriekin metro ugari irabazi zuten. Inglesek beren aldetik, ezin zuten beren ohizko jokoa gauzatu. Bolada batzuetan ondo, baina zenbait momentutan nahiko nahastuta, ezinean hitz batean. Hala ere, aurreko jokoa garaipena jorratzen aritu ziren.

**ESKOZIAK JOKO INDARTSUA** Lehen zatiaren eta bigarrenaren hasieran izugarria izan zen Eskoziak egindako lana, indartsu. Bigarren zatian eta minutuak joan ahala, Inglesek beren jokoa egiten hasi ziren, aurrekoarekin etekinik lortzen ez zutelako konturatu. Melé bilduetan eta eskoziarren beherakadaxoaz jabetuz, baloia ederki gorde zuten hankaz, Teagueren bidez. Horrela, metro ugari irabazteaz gain bultzaka, aurrekoen hirugarren lerroa biltzea lortu zuten, gero lasaiago irekitzeko hiru laurdeneoentzat.

Touchetan ere nagusitzen joan ziren pixkanaka eta azkeneko 15 minutuetan ehundoko presioa egin zuten larrosakoek. Halako batean, melé bildu bat ederki bultzatuz baloia jaso zuten Hill erdilariak eta horrek Rob Andrewri eman zion. Andrew-k drop bat lortu zuen eta Ingleterrek gairapena eskuratu zuen hiru puntuz. Inglesek azken minutuetan egindako presioa etengabea izan zen eta aukera bat baino gehiago izan zuten entseia lortzeko. 6-6ko berdinketarekin, eskoziarren entseiu marratik bost metrora egon ziren eta ondoren, Rob Andrew lerro beretik metro batera geratu behar izan zuten.

ESKOZIA	6	9	INGLATERRA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sole</li> <li>• Allan</li> <li>• Burnell</li> <li>• Weir</li> <li>• Gray</li> <li>• Jeffrey</li> <li>• Calder</li> <li>• White</li> <li>• Armstrong</li> <li>• Chalmers</li> <li>• Tukalo</li> <li>• Linnen</li> <li>• S. Hastings</li> <li>• Stanyer</li> <li>• G. Hastings</li> </ul>			<ul style="list-style-type: none"> <li>• Leonard</li> <li>• Moore</li> <li>• Probyn</li> <li>• Dooley</li> <li>• Ackford</li> <li>• Skinner</li> <li>• Winterbotton</li> <li>• Teague</li> <li>• Rickards</li> <li>• Rob Andrew</li> <li>• Underwood</li> <li>• Guscott</li> <li>• Carling</li> <li>• Halliday</li> <li>• Webb</li> </ul>
<p><b>Anotazioak:</b>                      Eskozia (6 + 0). 2 zigor kolpe: Gavin Hastings (10', 30')                      Ingleterra (3 + 6). 2 zigor kolpe: Webb (33', 55').                      Drop bat: Rob Andrew (74')                      Arbitroa: M. Fitzgerald (Australia)                      Zelaia: Murrayfield (Edinbourg)</p>			



Ingleterrek ez zuten erraztasunik izan, baina azkenera saria izan zuen.

## Ingleterren aukera

Ingleterako rugby selekzioak garaipen handia lortu zuen atzo Eskoziaren aurkako finalerdian. Roger Utleik zuzentzen duen taldea agertzen zen txapelketa irabazteko faboritoen artean eta iragarpenak ederki bete ditu orain arte. Mundialeko estreineko partidua galdu zuen arren, hurrengoetan izugarri indartsu agertu dira ingelesak, batez ere Frantzia eta Eskozia talde sendoen aurka.

Larrosakoek finalerako sailkatzea lortu dute eta Ozeaniako talde baten aurka jokatu beharko dute bertan —Australia-New Zealand partiduko irabazlearen aurka—. Bi selekzio horiek munduko onenak dira egun eta txapelketan sasoi onean daudela argi utzi dute. Hala ere, Ingleterrek zeresanik izango du final honetan, Twickenhamen jokatuko bait du. Azken kanporaketetan etxetik kanpo jokatu dute ingelesak, baina hala ere partidu guztiak irabazteko gai izan dira. Finalean beren zaletuen laguntza osoa izango dute dudarik gabe eta ondorioz, beste taldeak izango du presioa.

Larrosakoek esperientzia handiko jokalariek dituzte eta hori nabari izango da horrelako partidu gogor batean. Munduko Txapelketa irabazteko aukera bikaina du egun Europako selekzio indartsuena den Ingleterrek eta hori ez du alperrik galtzerik. Hala ere, Ozeaniakoek maisu handiak dira eta gogor borrokatuko dute beren nagusitasunari eusteko.



Partidu gogorra dago iragarrita australiar eta zelandarren artean.

## Final aurreratua jokatuko dute gaur Australia eta New Zealandek

K.A. / DONOSTIA

Pronostiko argirik ez dago Australia eta New Zealanden arteko finalerdian, baina 'wallabies-ek' buruhauste nahikoa izan dute azkenaldian eta 'All Blacks-ak' Dublineko Lansdowne Roaden lasaiago zelairatzeko arriskua dago. Bi taldeek rugby erabat desberdina egin arren, parekotasuna izan da nagusi Ozeaniako bi selekzio hauen artean azken urteetan.

Australiarren artean, Farr-Jones eta Campese ez badira jokatzen moduan, finalera heltzeko aukera handirik ez dute izango; azken ordu arte zalantza izango dira biak.

Nick Farr-Jones Samoaren kontrako partiduan lesionatu zen, belauan, eta ustez osatuta Irlandaren kontra zelairatu zen. Baina hamar minutu besterik ezin izan zuen irauin, Matthewsek gogor plakatu ondoren aldageletara joan behar izan bait

zuen, berriz ere belauna minduta. Bob Dwyer entrenatzailearentzat gaur egun ezinezkoa da funtsezko jokalaririk haur ordezkatzea —munduko erdilari onena—, eta hasieratik zelairatzeko ahalegin guztiak egingo ditu Farr-Jonesek.

David Campese hegala ere lesionatuta dago, baina Irlanda menderatzeko erabakiorra izan zen jokalaririk ondo gaintu ditu egindako azterketak —estres haustura jasan omen zuen— eta ziurrenik hasierako hamabostekoan izango da mundu osoko entseiu markarik onena duen jokalaria. New Zealand tituluaren defentsan ari da Munduko Txapelketan, eta 'All Blacks-en' arma onena ohizko potentzia eta joko indartsua izan da finalerdietara heltzeko. Behin eta berriz kolpatu zuloa egin arte, alegia. Keerwan eta Timu hegalarrien indarra izango da australiarrentzat arriskutsuena, Fox ostikartzaila bikainaz gain.



Lynagh eta Fox jokalariek arteko lehia ikusgarria izango da.